

Eukalipto landaketaren inguruan EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa:

“EUKALIPTO-LANDAKETAK DEBEKATZEAREN ALDEKO MOZIOA

Oñatiko herritar talde batek, Bargastak, Gazte Asanblada, Ernai, STH, Oñatiko Naturzaliak, Oñatiko Duintasuna Taldea, LAB, eta ELA eragilen atxikimenduari honako proposamen hau aurkeztu dio Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurari, eztabaidatu eta bozka dezan:

Berriki, 2020ko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzaren agindura, EHU eta Aranzadi zientzia-elkartearen arteko elkarlanean aztertu dituzte eukalipto-landaketak EAEn eragiten dituzten ingurumen-kalteak (“Eukalipto-landaketen ingurumen-eragina”. A. Elosegi, J. Arizaga, C. Cabido eta A. Larrañaga). Txostenaren emaitzek ez dute zalantzarik uzten: eukaliptoen eragina kaltegarria da ingurumenerako, eukalipto-landaketen hedatzea kaltegarria litzateke lurzoru eta hidrobiologikoki nola biodibertsitatearentzat.

Era berean, 2017ko abenduaren 1ean Espainiako Espezie Exotiko Inbaditzaileen katalogoaren Batzorde Zientifikoak jaulkitako CC 30/2017 ebazpenak, *Eucalyptus* generoko zuhaitzen barietate guztiei “izaera inbaditzailea” adierazita, aho batez gomendatu zuten “baso-ustiapenerakoak diren eukalipto espezie guztiak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan biltzea, espezie horiek arrisku handia dakartelako, euren ezaugarri biologiko, fisiologiko eta ekologikoen ondorioz”.

Euskal Autonomia Erkidegoan eukaliptoz estalitako azalera 4 aldiz biderkatu da azken hiru hamarkadetan, eta dagoeneko lurraldearen %2,6 estaltzen du. Mendebaldetik eta Bizkaiko kostaldetik Araba eta Gipuzkoara zabaltzen ari da. Azalera horren %60 inguru *Eucalyptus globulusek* estaltzen du, %37 *E. nitens*-ek eta %3 beste eukalipto espezie batzuek.

Azken bi urteetan, *Pinus insignis*aren gaixotasuna dela medio zuhaitz landaketa eremu zabalak moztu ari dira epe motzean, horrek ingurumenean dakarren ondorio kaltegarriekin. Hori gutxi balitz, *Pinus insignis* ordezkatzeko proposatzen diren espezieen artean *Eucalyptus* generokoak ageri dira, Oñati mailan *Eucalyptus nitens* espeziearen landaketak jada errealitate bihurtu direlarik. Basogintzak duen arazoa ez denez espezie batera edo bestera mugatzen, eukalipto landaketen problematika mahai gaineratzean erreforma mailan eragiten ibiliko ginateke. Edozein erreforma, bestalde, eredia irauliko duen prozesu baten baitan ere kokatu daiteke, ikuspegi ekologiko eta sozial batetik basogintzaren auzian beharrezko duguna.


Azkenik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak dion moduan, mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea Udalerriko eskumen propioak dira. Lurralde eta hirigintza plangintzako 2/2006 Legeak, bestalde, herriko ingurumena era egokienean mantentzeko neurriak hartzeko eta lurzoria, lurpea edo lur-gaina erabiltzea dakarten jarduketetarako hirigintza-lizentzia eskatzeko Udalek dituzten ahalmenak ezartzen ditu; ahalmen horiek maniobra-tarte bat irekitzen dute, beraz, gai hau arautzeari dagokionez. Gainera, eukaliptoak landatzeko udal-debekua ez da mendien arloko legediaren aurkakoa, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak agiri publikoetan adierazi duen bezala (Aramaioko HAPO).

Aurreko guztia kontuan izanik, honako hau eskatzen dugu:

- Ebidentzia zientifikoei eta egungo eta etorkizuneko belaunaldien interes kolektiboiei men eginez, udalerrri guztian eukalipto-landaketak egitea debekatzea.
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea, ahalik eta lasterren, eratu dezala Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa eta berehala ireki dezala *Eucalyptus* espezie desberdinak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoan sartzeko administrazio-prozedura.
- Foru Aldundiari baso-politikak alda ditzatela eskatzea, bere lurraldeetan eukalipto gehiago landatu ez daitezten, eta titulartasun publikoko zein pribatuetako mendietan egun dauden eukalipto-sailen ordezkapen ordenatua planifika dezan.

Oñatin, 2022ko otsailaren 24an”

Oñatin, 2022ko otsailaren 17an



.../...



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIER99754dba-420d-4f94-904d-3be3e8caceba**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>